

Balantzea eta berrikuntza

Argazkia: Leire Arzuaga



Joseba Intxausti

EABko (Euskararen Aholku Batzordea) partaidea ohia

Euskal Herriko Prentsan ikusi ahal izan dugunez -eta aurreko hilabeteetatik ere espero zenez-, hizkuntz politika hauteskunde-aurreko eztabaidagai bizi bilakatu da. Horrek ez du esan nahi, ordea, gure artean bat-batean hizkuntzaz zinezko ardura berririk jaiotzen zaigunik (berorrek, balizko ardura biziago hori, beste gabe ukatzen ez badu ere).

Gogoratu beharra dago, noski, Eus-

kal Herrian hizkuntz politikek garapen oso ezberdineko eremu administratiiboak besarkatzen dituztela, eta bakoitzak eta denok jakin beharko dugu oraingo abiapuntutik hurrengo pausoa nondik has eta nola eman.

Barruti horien gainetik, bi hitzetara mugatuko nituzke hemen, lehentasunak ezezik premia orokorrak ere: balantzea eta berrikuntza...

Aurreko urteetan gertatu eta egingandakoaren balantzea guztiz premiazkoa da, eta itsumustuan ibili nahi ez badugu, oraintxe bertan egitekoa. Guztion autokritika eta heterokritika -azken buruan, balioespen leiala alegia- bi esparrutan: a) Hizkuntzaren barnegaikuntzan diharduten erakunde, talde eta teknikarien aldetik b) Hizkuntzaren hedapen sozialean ibili direnen aldetik. Beterie erabilitako baliabide pertsonal, ekonomiko eta teknikoei atera zaien etekina zenbatekoa eta nolakoa izan den jakiteko. Balantze horren ondoren, bigarren urrats nagusia emateko moduan izan gaitezke.

Jada, dirudienez, adostasun oso zabaldua da hizkuntz politikarako erakundeen berrikuntzaren beharrekikoa (Iparraldean, sorkuntzarekikoa, esango genuke): a) Batzuentzat, politika haren garapenean indarrean egon den erakundeztapen-moldeak, oro har, bere ahalmenen sabaia jo duelako, b) Eta, besteentzat, "bestelako" politikaren bat nahiago dutelako. Nolanahi ere, berrikuntzaren zain gaude gehienok ere.

Bi eginkizun horiei -balantzeari eta erakunde-berrikuntzari- heltzen asmatuko bagenu, agian egingarria izango da datorren hamarkadarako politika berri baten diseinua era: hirugarren premia nagusi bat.

Hizkuntzari begira -erakundeetatik nahiz gizartetik bertatik- ari diren erakunde eta taldeek aukera aparta izango dute berehala, (eta alderdien kasuan, hauteskunde-luzimendutan galdu gabe, ahal balitz), balantzeak egin, proposamenak landu, indarrak bildu eta lan berriei ekiteko. Hori nahiko genuke, seguraski, euskaltzale guztiok.

Hizkuntza normalizazioa-Hizkuntza plangintza-Hizkuntza Politika

Argazkia: Ander Gillenea



Iñaki Arruti

Lasarte-Oria-ko Teknikaria

Interesgarria izan dakiguke hiru kontzeptu hauek azaltzea. Ur sakone-

gietan sartu gabe bada ere, esan dezakegu hizkuntza normalizazioak helburuaren definizioa ematen digula, hizkuntza plangintzak helburu hori nola lortu azaltzen digula eta hizkuntza politikak helburu hori modu horretara lortzeko ahaleginak antolatzen dituela.

Sarri hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza nahastu egiten dira. Prozedura logikoari jarraiki, hizkuntza plangintzak gidatu behar du hizkuntza politika, lehenengoa egin behar denaren definizioa baita eta bigarrena hortik egin ahal denaren jarduna.

Hizkuntza normalizazioa

Euskararen normalizazioak (labur-labur adierazita) euskara demografikoki, funtzionalki eta geografikoki normalitzea esan nahi du. Hau da, Euskal Herriko biztanle guztiak ezagutu eta erabiltzea, funtzio edo esparru (administrazioa, komunikabideak.... lagunartea, familia) guztietan erabiltzea eta Euskararen Herri guztietan (Euskal Herri osoan) erabiltzea esan nahi du.

Hizkuntza plangintza

Hizkuntza plangintzak, egun dugun

egoeratik (egoera demografiko, funtzional eta geografikotik) abiatuta, helburu hori nola lor daitekeen adierazi behar digu. Horretarako, egoeraren diagnosiak emandako informazioa eta hizkuntzak dituen beharizanak abiapuntu izanik, Plangintza Estrategikoa egin behar da, besteak beste hedapen demografikoa (pertsonek), funtzionala (taldeak) eta geografikoa (lurraldea) nola gauzatu azalduz (lehentasunak, egitarauak, bitartekoak...)

Hizkuntza Politika

Hizkuntza politikaren egiteko nagusia aurreko bi puntuak ahalik eta

koherentzi handienarekin uztartzea da. Hau da, helburua eta honen lorpenerako egin beharrekoa egikaritzea, administratzea.

Hizkuntza politika ahaleginaren mundua da eta zorionez pertsona eta erakunde asko dira euskara biziberrietzeko ahaleginak egiten ari direnak (lurralde, esparru eta erakunde-mota desberdinetan).


Ahaleginen mundua ordea, nahiz eta ezinbestekoa izan, ez-nahikoa ere izan daiteke egin ahal duguna egin behar dugunaren desberdina (minimoen azpitikoa...) bada. Horiek horrela, egun

iruditzen zait indar gehiago jarri beharoko genituzkeela hizkuntza plangintza definitzen.

Plangintza hau definitzerakoan oso inportantea da (batez ere alderdikieraren kulturak hizkuntza normalizazioaren kultura gailentzen duen honetan) berau irizpide soziolinguistikoez gidatua eta zientifikoa izatea.

Hizkuntza politika orokorrak beraz, hizkuntza plangintza horrek zehazten dizkion lehentasunak, egitasmoak, bitartekoak... bideratu behar lituzke, horretarako behar diren erabakiak hartuz.

Hizkuntz Politikaren inguruan...



Argazkia: Xouse Simal

Jon Orbezua

EHE-ko Bizkaiko
Arduraduna

Zail da egoeraren deskribapena laburki azaltzen, baina ahaleginduko gara.

*Europako Parlamentuak, Eurokarta onartu zuenetik, bigarren urratsa ere eman du, Killilea txostenaren bidez, Europako hizkuntza gutxiengotuen babesteko (mugaz gaindiko instituzioak, estatutu legal egokia...); baliagarri baina ez nahikoa den arren.

Honen inguruan mugimendurik nabarmenena frantziar gobernuak emandakoa dugu, frantseseraren ingelesarekiko defentsa aitzakia, Toubon lege proiektua, hain zuzen. Lege honek, ez du frantsesera ez den beste hizkuntzarik onartzen estatuko lurraldean, berorren eskusibotasuna zaintzeko neurri zorrotz eta bortitzak proposatuz.

*Nafarroako Vascuence Legearen aldaketa dela eta, zer esan daiteke, herrialde hori hiru zonaldean banaturik mantentzen baitu eta, aldaketa, hezkuntza alorrera mugatzen baita (zonalde erdaldunera mixtoan dagoen aukera zabalitzen du; hots, eskariaren arabera hezkuntza alorrean euskal lerroak irekitzeko aukera...).

*EAEan, berriz, Euskararen Aholku Batzordearen azken txostenean, zenbait puntu nabarmen daiteke:

-Hizkuntz politikarako molde berriak (lege berriak ote...? Katalunian urrats handia eman dute alor honetan).

-Hizkuntz politika instituzionala artikulatu eta HPINren gidaritzapean bideratu.

-Herri ekimenaren ezinbestekotasuna normalkuntza prozesuan.

-Herri ekimenaren eta instituzioen arteko gatazka gainditu (elkarlana benetan bideratu...).

Puntu interesgarriak, baldin eta horretarako borondate politikorik bada.

Baina, badaude beste zenbait gauza

kezkarriak ere: 83ko txostenean irakaskuntza, administrazioa eta komunikabideak hartzen ziren lehentasuntzat (hizkuntzaren funtzio formaletan kokatzen dira hirurak...) eta 93koan aldiz aurrekoarekin eten eginez, transmisioa, senitarte eta gazteria (ez-formalak).

Zalantza barik, azken hauek landu behar dira; baina ezinbesteko deritzogu funtzio formaletan gogor eragiteari beseetan arrakastarik izan nahi badugu, hauexek emango baitiote euskarari bere garapenerako behar duen prestigio soziala. Gainera, gure esku sekula izan ez ditugun funtzio horiek eskuratzea ezinbestekoa da euskarak aurrera egingo badu.

EAEko instituzioek, badute beste zeregin garrantzitsu bat ere egun ematen den egoeran: Europatiko legeek eskaintzen duten aukera garatzeko lidergoa hartzea (mugaz gaindiko instituzioak sortzeko presioa eta lana, estatutu legal egokia...), Iparraldean eta Nafarroan EAEan une honetan ematen den egoera legaleraino (eskasa bada ere) iritsi daitezten, alde batetik eta instituzioen eta herri ekimenaren arteko artikulazioa eta elkarlana benetan bideratzea, botere politikoa hizkuntz helburuen zerbitzuan jarritz.